

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica*

**GAZTEEN
ARGAZKIAK 6**
2003ko Abendua



http://www1.euskadi.net/estudios_socilogicos

Aurkibidea

Sarrera	1
Laburpena	7
Fitxa teknikoa	15
A.– Euskadiko gazteak eta teknologia berriak	19
• Teknologia berrienganako jarrera	20
• Teknologia berrien beharra	22
• Teknologia berrienganako interesa	24
• Etorkizunerako asmoak	26
• Informatika eta intimitate pertsonala	28
• Datu pertsonalen babesa	30
B - Euskal nortasuna eta gazteen bestelako jarrera politikoak.....	33
• Politikari buruzko interesa.....	34
• Alderdi politiko batenganako gertutasuna	36
• Ezker-eskuin ardatza	38
• Euskal herritar-espainiar ardatza	40
• Independentismoa	42
• Begikotasun politikoak	44
• Buruzagi politikoak balioztatzea.....	46
• Erakundeekiko konfiantza.....	48
• Eusko Jauritzarenganako konfiantza	50
• Autonomia Estatutua eguneratzea.....	52
• Autonomia Estatutua aldatzea	54

• Euskal Autonomia etetea.....	56
• EAEren, Nafarroaren eta Iparraldearen arteko erlazioak	58
• Espainiako estatuaren lurralde antolamendua ...	60
• Autodeterminazio eskubidea	62
• Autodeterminazio erreferenduma	64
• Autodeterminazioa eta baketzea	66
• Arazo politikoak indarkeriarekin konpontzea	68
• Egoera pertsonala, Euskadikoa eta Estatukoa nola ikusten diren	72
• EAEko egoera ekonomikoa, soziala eta politikoa balioztatzea	74
• Ekonomiaren globalizazioa.....	76
• Administrazioarekiko poztasuna	78
• Administrazioak hainbat alorretan duen jarduera balioztatzea	80
• Demokraziaren funtzionamendua.....	82
• Herritarren bake itzaropena.....	85

Bibliografia	87
---------------------------	-----------

Sarrera

Helburuak

Txosten hau *Gazteen argazkiak* seriearen seigarren emanaldia da, eta **15 eta 29 urte bitarteko (bi adinak barne) Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen erantzunak 2002an** egindako hiru azterketa soziologikoetan gehitzearen emaitza da.

1996, 1997, 1998, 1999, 2000 eta 2001 urteetako antzeko datuak ditugunez, gaztediaren iritzien **bilakaeraren** ikuspegia ere badugu. Era berean, eta **konparazio** ondorioetarako, 30 urte eta gehiagoko pertsonen emaitza orokorrak ere kontuan hartu ditugu, 2002ko azterketa beretakoak.

Hala, 2002an EAEko gazteak nolakoak diren jakiteaz gain, helduengandik zertan ezberdintzen diren eta jarreretan izandako bilakaerak zein diren ere jakin nahi dugu. **Deskribapeneko, bilakaerako eta konparaketako** ikuspegi horrek gidatuko ditu honako orrialdeak.

Galak

Hurrengo orrialdeetan hiru eduki arlo handiri buruzko informazioa dugu, eta arlo bakoitzak adierazle soziologiko propioak ditu. Hona hemen arloak:

- A- EUSKADIKO GAZTERIA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK:
 - **Teknologia berrienganako jarrera:** zientziaren eta teknologia berrien esparruan sortzen diren berritasunengatiko interesa.
 - **Teknologia berrien beharra:** eguneroko bizimoduan teknologia berrien beharra zenbaterainokoa den.
 - **Teknologia berrienganako interesa:** ordenagailu edo telefono mugikor bidez sarbidea duten zerbitzuekiko interesa (oso, nahiko, gutxi edo bat ere ez).
 - **Etorkizunerako asmoak:** teknologia berriak erabiltzeko aukera.
 - **Informatika eta intimitate pertsonala:** herritarren intimitateak informatika eta ordenagailuak erabiltzeagatik duen arriskuari buruzko kezka maila.

- **Datu pertsonalen babesa:** datu pertsonalen babesaren inguruan, ordenagailuen erabilerak eskaintzen duen segurtasun maila.
- B- EUSKAL NORTASUNA ETA GAZTEEN BESTELAKO JARRERA POLITIKOAK:
 - **Politikari buruzko interesa:** politikari buruz adierazitako interesaren maila.
 - **Alderdi politikoren batenganako gertutasuna:** gazteek alderdi politikoren batenganako sentitzen duten hurbiltasuna.
 - **Ezker-eskuin ardatza:** norbere burua eskalan ezartzea, eskalako muturrak *ezker muturrekoa* eta *eskuin muturrekoa* direlarik.
 - **Euskal herritar-espainiar ardatza:** norbere burua eskalan ezartzea, eskalako muturrak *euskal herritar bakarrik* eta *espainiar bakarrik* direlarik.
 - **Independentismoa:** Euskal Herriaren independentziarekiko adostasunaren edo desadostasunaren maila.
 - **Begikotasun politikoa:** alderdi politiko batek eragindako begikotasuna, 0tik 10erako eskalan.
 - **Buruzagi politikoak baloratzea:** EAEko eta Estatuko buruzagi politiko nagusien sinpatia balioztatzea 0tik 10erako eskalan.
 - **Erakundeekiko konfiantza:** Eusko Jaurlaritzarengan, Eusko Legebiltzarrarengan, alderdi politikoengan, Elizarengan, Ejertzitoarengan, justziarengan, sindikatuengan, Nazio Batuen Erakundearengan, gobernuz kanpoko erakundeengan, enpresa handiengan eta hedabideengan konfiatzeko joera duen edo ez duen.
 - **Eusko Jaurlaritzarenganako konfiantza:** Eusko Jaurlaritzak Euskadiko arazoak konpontzeko egin dezakeenarenganako konfiantza.
 - **Autonomia Estatutua eguneratzea:** Estatutua egungo egoerara moldatzearekin bat etortzea.
 - **Autonomia Estatutua aldatzea:** Estatutuaren aldaketarako balizko edukiekin bat etortzea edo ez.

- **Euskal autonomia gabetzea:** euskal autonomiaren balizko gabetzeak eragin diezaiekeen alderdiak.
- **EAEn, Nafarroaren eta Iparraldearen arteko erlazioak:** hiru lurraldeen artean izatea nahi den erlazioa.
- **Espainiako estatuaren lurralde antolamendua:** lurralde antolamenduko aukerekiko (zentralizazio handiagotik hasi eta autodeterminazio eskubideraino) adostasuna.
- **Autodeterminazio eskubidea:** Eusko Legebiltzarraren 1990eko proposamenaren berri izatea, eta autodeterminazio eskubidea zertan datzan jakitea.
- **Autodeterminazio erreferenduma:** euskal herritarrek beren etorkizuna erabakitzeke erreferenduma deitzeko duten eskubidea.
- **Autodeterminazioa eta baketzea:** autodeterminazio eskubidea onartzeak Euskal Herria baketzen lagunduko duen ideiekiko adostasuna.
- **Arazo politikoak konpontzea:** arazo politikoak konpontzeko Euskal Herrian indarkeria beharrezkoa den edo ez.
- **Arazo politikoak konpontzeko bideak:** Euskal Herrian arazo politikoak konpontzeko nahiko bide dagoen edo ez.
- C- GAZTEEK EGOERARI BURUZ EGINDAKO BALIOZTATZEA:
 - **Egoera pertsonala, Euskadikoa eta Estatukoa nola ikusten diren:** egoera pertsonala, Euskadikoa eta Estatukoa 0tik 10erako eskalan kalifikatzea.
 - **Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomikoa, soziala eta politikoa balioztatzea.** Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomikoa, soziala eta politikoa kalifikatzea.
 - **Ekonomiaren globalizazioa:** globalizazioak Euskadiko ekonomiarengan duen eraginaren abantailen edo eragozpenen nagusitasuna.

- **Administrazioarekiko poztasuna:** Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Gobernu Zentrala eta Europako Gobernu (Europako Batzordea) atsegin izatea ala ez.
- **Administrazioak hainbat alorretan duen jarduera balioztatzea:** Administrazioak hainbat alorretan duen jarduera balioztatzea.
- **Demokraziaren funtzionamendua:** Espainiako estatuko eta Euskal Herriko demokraziaren funtzionamenduekiko asebetetzea.
- **Herritarren bake itzaropena:** hurrengo urteetan Euskadin bakea sendotuko denaren itzaropena edo ez.

Datuen egitura eta aurkezpena

Ohiko diskurtso linealaren ordez, txosten honetako egituraren eta aurkezpen estetikoaren oinarri **informazio blokeak** dira. Hiru eduki arlo dira, A, B eta C, eta arlo bakoitzean zenbait adierazle soziologiko sartzen da. Horietako bakoitza informazio bloke bat da, gehienez ere bi orrialderekin:

Gutzizkoak: 15 eta 29 urte bitarteko gazteek adierazle soziologikoan izan dituzten emaitza orokorrak, eta horiek 29 urtetik gorakoen datuekin alderatzea. Aurreko azterketetako datuak egonez gero, jaso egiten dira. Horri esker, Euskadiko gazteek gai jakin horri buruz duten iritzia bilakaera zein izan den jakin daiteke.

Kolektiboka: gazteen erantzun orokorrak banatzea adierazle soziologiko bakoitzean ezberdintasunak dituzten kolektiboen arabera. Honako hauek dira kontuan hartu diren ezaugarri bereizleak: probintzia, sexua, adin taldeak, udalerraren tamaina, jatorria, ikasketa maila, okupazio nagusia, hautemandako klase soziala, euskararen jakintza, euskal herritar-espainiar ardatza, politikari buruzko interesa, ezker-eskuin ardatza eta erkidegoko hurrengo hauteskundeetan botoa nori emateko asmoa duen.

Kontuan hartzen diren faktore horiek honako kategoriak dituzte:

- Probintzia: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.*
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa.*

- Adin taldeak: 15-17, 18-21, 22-25, 26-29.
- Udalerrriaren tamaina: *txikia* (<10.000 biztanle), *ertaina* (10.000-120.000 biztanle) eta *hiriburua* (>120.000 biztanle; Gasteiz, Bilbo eta Donostia).
- Jatorria: *etorkina*, *bertakoa* eta *etorkinen familiakoa*, *bertakoa* eta *familia mistokoa*, *bertakoa* eta *bertako familiakoa*.
- Ikasketa maila: *lehen mailako ikasketak baino gutxiago* edo *lehen mailakoak*, *bigarren mailakoak* eta *goi mailakoak*.
- Okupazio nagusia: *lanean*, *langabezian*, *etxeko lanak*¹, *ikasten*.
- Hautemandako klase soziala: *baxua* (klase ertaina-baxua edo langilea), *ertaina* eta *altua* (ertaina-altua edo diruduna).
- Euskararen jakintza: *ez* (ez daki ezer), *zerbait* (zenbait hitz daki edo zerbait hitz egin dezake) eta *bai* (nahiko ondo edo zuzen hitz egiten daki).
- Euskal herritar-espainiar ardatza: *batez ere euskal herritarra* (euskal herritarra bakarrik eta espainiarra baino euskal herritarragoa), *euskal herritarra bezain espainiarra* eta *batez ere espainiarra* (euskal herritarra baino espainiarragoa eta espainiarra bakarrik), *ed/ee*.
- Politikarekiko interesa: *batere interesik ez*, *ez oso interesatua*, *nahiko interesatua*, *oso interesatua*, *ed/ee*.
- Ezker-eskuin ardatza: *ezkerra* (ezker muturra + ezkerra + zentro ezkerra), *zentroa*, *eskuina* (zentro eskuina + eskuina + eskuin muturra), *ed/ee*.
- Erkidegoko hauteskundeetako botorako asmoa: EAJ/PNV, PP, PSE-EE, Batasuna, Aralar², EA, IU/EB, UA³ bestelakoak, abstentzioa, *ed/ee*, ez du adinik (18 urtetik beherakoa).

¹ Esan dezagun oso gazte gutxi aritzen dela etxeko lanetan, eta horrek datu horien estatistika konfiantza murrizten du; hortaz, ez ditugu komentatuko.

² Alderdi horren estatistika fidagarritasuna txikiagoa da, 2002ko abenduko Euskal Soziometroko datuak baino ez baititugu. Beraz, batzuetan ez dugu daturik, eta datuak ditugunean, tauletan aurkeztu ditugu, baina iruzkin gabe.

Orrialde bakoitzean ezberdintasun esanguratsuenen datu taula, horiek deskribatzeko aipamen laburrak, eta zenbaitetan, ilustratzeko grafikoa aurkezten dira.

Zenbakizko datuen sarean ez galtzeko, hasierako laburpenak txostenean aztertzen diren puntu hurbiltze orokorra eskaintzen digu, eta Euskadiko gazteek 2002an izan dituzten iritzi eta jarreraren ikuspegi orokorra ematen digu.

Jarraitu beharreko eskema, hein batean, aurreko ideietatik eratortzen da. Aurkezpen horren ostean, emaitzen sintesi orokorra eta azterketaren fitxa teknikoa azaltzen dira, eta gero hiru eduki esparruak garatzen dira. Azkenik, aztertutako gaietan sakondu nahi duen irakurlearentzako bibliografia osagarria dago.

³ Estatistika fidagarritasuna txikiagoa da, alderdi horrek Araban baino ez baitu parlamentu ordezkariarik, eta inkestaturen artean aukeratzailerik gutxi baitu. Beraz, batzuetan ez dugu horiei buruzko daturik, eta datuak ditugunean, tauletan aurkeztu ditugu, baina iruzkin gabe.

Laburpena

Orokorrean

ZEIN JARRERA DUTE GAZTEEK TEKNOLOGIA BERRIEKIKO?

EAEko gazteen %68k **interesa** adierazten du zientziaren eta teknologiaren alorrean sortzen diren berritasunekiko, eta %32k gutxi edo batere interesik ez dute.

Teknologia berrien artetik, honako hauek dira **eguneroko bizimodurako** beharrezkoenektzat jotzen direnak: ordenagailu pertsonala (%74), interneteko konexioa (%63), posta elektronikoa (%57) eta telefono mugikorra (%56). Nabarmen gutxiago dira faxaren (%21), kable bidezko telebistaren eta DVDaren (%16) eta telebistako kate digitalen (%12) beharraz mintzo direnak.

Euskadiko gazteek **interesa** dute **ordenagailua edo telefono mugikorra** lana bilatzeko (%78), bidaiak prestatzeko (%75), udalerriko administrazio zerbitzuak kontsultatzeko (%72), prentsa edo bestelako dokumentuak irakurtzeko (%70), ikastaro edo prestakuntzaren bat on-line jarraitzeko (%64), iritzi medikoa kontsultatzeko (%59) eta banku kudeaketak egiteko (%53) erabiltzeko. Aldiz, interes gutxiago dute erosketak egiteko (%34), museoetako arte bildumak ikusteko (%32) eta erabilgarritasun gutxien ematen zaion aukera politikariek harremanak izatea da (%17).

Honako hauek dira gazteek etorkizunean ordenagailu bidez egiteko aukera gehien dauden **jarduerak**: ikuskizunetarako, zinemarako edo antzerkirako sarrerak erostea (%78), Administrazio Publikoari dokumentuak eskatzea (%66), banku kudeaketak egitea (%57), kexu edo erreklamazioak aurkeztea (%55) eta errenta aitortpena egitea (%53); etxerako erosketak egitea (30%) da gutxien onartu dena.

Teknologia berrienganako erakutsitako interesa, eguneroko bizimoduan horiek erabiltzeko beharra eta interesa, eta etorkizunean erabiltzeko aukerak, handiagoak dira goi mailako ikasketak dituztenen artean eta tarteko adin taldeetan.

INFORMATIKA ETA SEGURTASUNA

EAEko gazteen %59k diote ez dutela kezkarik informatika eta ordenagailuak erabiltzeagatik herritarren **intimidadeak** duen arriskuagatik. Aldiz, %38k kezkatuta daudela diote.

Internetek eta bestelako teknologia berriek datu pertsonalen babesari buruz eskaintzen duten **segurtasunari** dagokionez, Euskadiko gazteen %78 nahiko seguru sentitzen dira kreditu txartelarekin ordaintzeko. Segurtasun sentsazioa askoz txikiagoa da gainerako kasuetan: Internet bidezko errenta aitortpenean (%37), telefono bidezko banku eragiketetan (%27), internet bidezko banku eragiketetan (%24), txekeak postaz bidaltzean (%21), norberaren txartelaren zenbakia telefonoz ematean (%15) eta norberaren txartelaren zenbakia Internet bidez ematean (%13).

Informatikak intimitatea mantentzean duen eragina balioztatzean, ikasketa mailak eragina du, eta ikasketa gehien dituztenak dira gehien kezkatzen direnak. Bestalde, datu pertsonalen babesaren sentsazioa handiagoa da horien artean.

ZER-NOLAKO INTERESA DUTE EUSKADIKO GAZTEEK POLITIKAREKIKO? NOLA BALIOZTATZEN DITUZTE ALDERDI ETA BURUZAGI POLITIKOAK?

Politikak EAEko gazteengan sortutako **interesa** baxua da (%33 nahiko edo oso interesatuta daude), eta are baxuagoa alderdi politikoenganako hurbiltasuna (%11 oso edo nahiko hurbil daude, eta %56 ez daude inola ere hurbil). Hala, **alderdi politiko** batek ere ez du gainditu (0tik 10erako eskalan, 5). Honako hau da lehentasunen zerrenda: PNV/EAJ (4,2), EA (3,8), IU/EB (3,5), PSE-EE (3,1), Batasuna (2,5), PP (2,0) eta UA (1,9).

Politikari buruzko interesa handiagoa den heinean, alderdi politikoren batenganako hurbiltzea ere areagotzen da. Alderdi politikoren batenganako hurbilen sentitzen direnak Batasunaren balizko aukeratzailleak (%35) dira.

Gazteen ustez, **buruzagi politiko** batek ere ez du gainditzen. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria (4,8) da balioztatze onena lortu duen buruzagia eta ondoren Begoña Errazti (3,7), Xabier Arzalluz (3,4), Javier Madrazo (3,3) eta

Patxi Zabaleta (3,1). Beste bloke bat osatzen dute Gaspar Llamazaresek eta José Luis Rodríguez Zapaterok (2,9), Arnaldo Otegi (2,7), Nicolás Redondo Terrerosek eta Patxi Lópezek (2,5). Kalifikazio baxuagoa dute Jaime Mayor Orejak (2,0), José María Aznarrek (1,9), Carlos Iturgaitzek (1,9), Pablo Mosquerak (1,7) eta Enriqueta Benitok (1,3).

Euskal alderdi nazionalistetako buruzagiek lortu dute puntuaziorik altuena beren balizko aukeratzailen artean, kasu guztietan 5etik gorakoa.

NOLA ADIERAZTEN DA EUSKAL NORTASUNA GAZTEEN ARTEAN?

EAEko gazteen %54 gehien bat euskal herritar sentitzen dira, hau da, %36 euskal herritar bakarrik sentitzen dira eta %18 espainiar baino euskal herritarragoa.

Beste %33 espainiar bezain euskal herritar sentitzen dira, eta %6 baino ez dira batez ere espainiar sentitzen (euskal herritarra baino espainiarragoa, edo espainiar baino ez).

IDEOLOGIAREN ALDETIK, ZEIN JARRERA DUTE GAZTEEK?

Eskuineko-ezkerreko jarreraren aldetik, %42k ezkerrekoak direla diote, %14k zentrokoak direla eta %7k eskuinekoak direla. Beste %38 ez dira ardatz horretan kokatzen.

ERAKUNDEEKIKO KONFIANTZA

EAEko gazteek konfiantza gehien euskal hezkuntza sisteman (%76), gobernuz kanpoko erakundeengan (%75) eta Ertzaintzarengan (%70) dute. Gainerako erakundeekiko konfiantza hurrenkera honetan geratu da: irratia (%54), euskal administrazio publikoa eta sindikatuak (%47), enpresa handiak (%44), prentsa (%43), Nazio Batuen Erakundea (%42), telebista (%39), Eusko Legebiltzarra (%36), justizia (%32), Eliza (%26), eta azkenik, ejertzitoa (%14) eta alderdi politikoak (%11). Gainera, %49k konfiantza nahikoa edo asko dute Eusko Jaurlaritzak arazo nagusiei aurre egin ahalko dienaren aldetik, eta %44k hori horrela gertatuko denaren konfiantza gutxi dute edo ez dute batere.

Neskek mutilek baino konfiantza gehiago dute erakundeengan. Era berean, konfiantza handiagoa dute ideologia ardatzeko eskuinean daudenek, sindikatuengan izan ezik.

EAEko AUTONOMIARI BURUZKO IRITZIAK

Gazteen %61en ustez, Autonomia Estatutua eguneratu egin beharko litzateke, egungo egoerara egokitzeko. %13k uste dute ez litzatekeela eguneratu beharko, eta gazteen %26k ez dakite edo ez dute erantzuten.

Estatutuaren balizko aldaketaren bat planteatzen zaienean, Euskadiko gazteen %66 euskal herritarrek beren etorkizuna erabakitzeke eskubidea onartzearen aldekoak dira, eta %64 Nafarroarekiko eta Iparraldearekiko harremanak zabaltzearen aldekoak dira, betiere haiek nahi badute. Bestalde, Espainiako estatuak Euskadiren autogobernua ez murrizteko bermeak ezartzearen aldekoak asko dira (%57), bai eta beste eskumen batzuen bidez autogobernua hedatzearen eta Euskadi European eta mundu osoan zuzenean, bitartekorik gabe, agertzearen (%56), eta azkenik, Euskal Herria nortasun propioa hiritzat hartzearen (%53) aldekoak ere. Gipuzkoako gazteak, guraso biak bertakoak dituzten bertakoak, euskaldunak, batez ere euskal herritar sentitzen direnak eta ezkertiarzat aitortzen direnak, dira batez ere Estatutua aldatzeko proposamen guztiak bermatzen dituztenak.

EAEko gazte gehienak (%86 eta %90 bitarte) Euskadiren autonomia ezabatzearen kontrakoak dira. Uste dute autonomia ezabatze horrek ez lukeela bakea lortzen lagunduko, Euskal Herriko gatazka ez lukeela konponduko, bizikidetzeta eta ongizatea eta bizi kalitatea ez lirakeela hobetuko, eta gizarte eta politika tentsioa ez litzukeela arinduko.

EAE-REN, NAFARROAREN ETA IPARRALDEAREN ARTEKO ERLAZIOAK

Euskadiko gazteen %29k nahi dute EAEk, Nafarroako Foru Erkidegoak eta Iparraldeak orain arte bezala jarrai dezaten, bananduta baina euren artean erakunde erlazio sarriago eta egonkorragoekin. Beste %24k hiru lurralde horiek osatutako Estatu independentea nahi dute, eta beste %20k orain arte bezala jarraitzea nahi dute, hiru lurralde horiek bananduta. Bestalde, %9k

hiru lurralde horien arteko Europako eskualdea aukeratuko lukete, lurralde bakoitza oraingo Estatuan mantenduta.

ESPAINIAKO ESTATUAREN LURRALDE ANTOLAMENDUA, AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA ETA INDEPENDENTZIA

Proposatu diren Espainiako estatuaren lurralde antolamendu aukerei dagokionez, EAEko gazteen gehiengo (%36) aukera da autonomia erkidegoen autodeterminazioko eskubidea onartuko lukeen Estatu. Gainerako gaztedia bi multzotan zatitzen da: oraingo bezalako autonomia erkidegodun Estatu nahi dutenak (%25) eta autonomia erkidegoek egungoa baino autonomia handiagoa izan dezaten nahi dutenak (%22). Euskadiko gazteek ia ez dute hartzen egungoa baino Estatu zentralizatuagoaren aukera (%2).

Gazteen %56k ez dute entzun Eusko Legebiltzarrak 1990ean onartu zuen autodeterminazio eskubidearen proposamenari buruzko aipamenik. Autodeterminazio eskubidea Euskal Herriaren etorkizun politikoari buruz erabakitze eskubidea dela ulertzen dute %64k, eta %19k orain bertan independente izatea dela jotzen dute.

Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze autodeterminazio erreferenduma deitzeko eskubidea duela jotzen dute EAEko gazteen %74k. Gainera, Espainiako Gobernuak autodeterminazio eskubidea onartuko balu baketzear lagundu egingo lukeela uste dute %44k.

Euskal Herriaren independentziaz ari garela, gauzak ez dira hain argiak: %34 egoeraren arabera ados egongo lirateke edo ez, eta ados egongo liratekeenak (%28) eta ez liratekeenak ados egongo (%24) paretu daude. Murriztapenik gabeko independentzia Batasunaren aldeko botoa emango luketenen artean baino ez da nagusi, talde horretako %85en bermearekin.

ARAZO POLITIKOAK KONPONTZEA

Arazo politikoak konpontzeko bortsakeria erabiltzeari dagokionez, EAEko gazteen gehiengoak (%83) uste du ez dela bortsakeriarik behar.

GAZTEEK NOLA BALIOZTATZEN DUTE INGURATZEN DITUEN EGOERA?

2002an EAEko gazteek hobeto balioztatzen dute beren egoera pertsonala (0tik 10erako eskalan, 6.8) EAEko egoera (5.5) baino, eta hori Estatukoa (4.8) baino hobeto.

Euskadiri dagokionez, egoera ekonomikoa da balioztatze onenekoa (%63 oso ona+ona); aldiz, gizarte egoera balioztatzearen aldetik, gazteek oso bestelako iritziak dituzte (%45 ona eta %8 txarra). Aitzitik, egoera politikoari buruzko balioztatze txarra (oso txarra+txarra) dute gazteen %79k.

Ekonomiaren globalizazioari dagokionez, asko dira (%35) Euskadiri zertan eragin diezaiokeen ez dakiten edo erantzuten ez duten gazteak. Gainera, erantzuten dutenen jarrerak banandu egiten dira: %31k diote abantaila baino eragozpen gehiago ekarriko dituela; %20k diote eragozpenak baino abantaila gehiago ekarriko dituela, eta %14k abantailak eta arazoak dituela diote.

Gazte gehienek poztasuna adierazi dute Euskadiko administrazio publikoaren arloekiko: aldundiekin pozik daude %66, eta %64 udalekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Europar Batzordeaz (%40) eta Espainiako Gobernuaz (%32) galdetuta, asebetetasuna asko murrizten da. Poztasun balantzea (pozik daudenak – ez daudenak pozik) negatiboa da modu nabarmenean Espainiako Gobernuarentzat (-21). Balantze positiboa PPren balizko boto emaileek baino ez diote ematen.

Euskadiko administrazioaren jarduerari dagokionez, balioztatzea positiboa da, baina ehunekoak ezberdinak dira arloka: jarduera ontzat hartzen dute osasunean (%70), euskaran (%52) eta hezkuntzan (%51), eta ondoren gizarte ongizatean (%43), ingurumenean (%41) eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean (%40). Aldiz, etxebizitza arloko jarduera txarra dela uste dute gazteen %49k.

EAEko gazteen %66 ez daude pozik Espainiako estatuko demokraziarekin, eta %25 bai. Gainera, %62 ez daude gustura demokraziak Euskadin duen funtzionamendurekin, eta %29 gustura daude.

Hurrengo urteetan Euskadi baketzearen itxaropenari dagokionez, gazteen %56k baketuko dela uste dute, eta %39k ezetz.

29 urtetik gorakoan aldean

Gazteen artean, 29 urtetik gorakoekin alderatuta, teknologia berrienganako interesa hedatuago dago. Gainera, gazteen ustetan askoz beharrezkoak dira eguneroko bizimoduan aparatuak eta teknologia berriak, kasurako, ordenagailua, Interneteko sarbidea eta posta elektronikoa. Ondorioz, askoz interes handiagoa dute teknologia berrien erabilerarengan, eta etorkizun hurbilean gehiago erabiltzeko prest daude.

Herritarren intimitateak informatika erabiltzeagatik duen arriskuari buruzko kezka antzekoa da gazteen eta helduen artean. Hala ere, datu pertsonalen babesaz ari garela, gazteak seguruago sentitzen dira teknologia berriak erabiltzean.

Politikari buruzko interes urria eta alderdi politikoenganako hurbiltasun are urriagoa antzekoak dira gazteen eta nagusien artean. Aldiz, gazteek aldiarik kritikoago izateko joera dute, IU/EBrekin eta Batasunarekin izan ezik; horiek dira gazteen artean puntuazio onenak lortu dituztenak. Buruzagi politikoak kontuan hartuta, ezberdintasun bakarra da gazteek Arnaldo Otegi hobeto balioztatzen dutela.

Gazteak euskal herritarrago (euskal herritarra bakarrik edo espainiarra baino euskal herritarragoa) sentitzen dira nagusien aldean. Eta nagusiak baino gutxiago dira eskuindarrak.

Oro har, erakundeenganako konfiantza txikiagoa da gazteen artean nagusien artean baino. Hala ere, sindikatuak eta GKEek eta NBEk konfiantza gehiago ematen diete gazteei. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren lanarekiko konfiantza antzekoa da bi taldeen artean.

Estatutua egungo egoerara moldatzeko eguneratzearen aldekoak dira bi taldeetako gehienak. Hala ere, Estatutuaren balizko aldaketaz hitz eginda, Euskadik bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea onartzea eta Nafarroarekiko eta Iparraldearekiko harremanak zabaltzea, betiere haiek

nahi badute, Estatutuan sartzearen aldekoago dira gazteak. Gazteak nahiz nagusiak oro har Euskadiren autonomia ezabatzearen kontrakoak dira.

EAEren, Nafarroaren eta Iparraldearen arteko erlazioetarako formulen aldeko dira gazte eta nagusi gehienak; hala ere, Estatu independentea sortzearen aldekoago dira gazteak.

Gazteek Espainiako estatuaren antolamendurako proposatzen dituzten formulen aldeko bermeak antzekoak dira nagusien artean.

Eusko Legebiltzarrak 1990ean egindako autodeterminazio eskubidearen aldarrikatzea gazteek gutxiago ezagutzen dute. Baina ez dago alderik autodeterminazio eskubideaz ulertzen denari buruz. Horren inguruko erreferendumaren deialdia gazteen eta nagusien ehuneko bere defendatzen dute; hala ere, Euskal Herriaren independentziaren aldekoago dira gazteak.

Espainiako Gobernuak baketzea lortzeko laguntza gisa autodeterminazio eskubidea onartzearen hipotesia antzera balioztatzen dute gazteek eta nagusiek. Arazo politikoak konpontzeko bortxakeriarik behar ez denaren idearen inguruan ere ez dago ezberdintasunik. Hala ere, gazteen adostasuna ez da hain handia demokrazia honetan arazo politikoak konpontzeko adinako bide dagoenaren adierazpenarekin.

Gazteek nagusiek baino hobexago balioztatzen dute beren egoera pertsonala, eta Euskadiko eta Estatuako egoerari buruzko balioztatzeak oso antzekoak dira. Gazteak eta nagusiak EAEko egoera ekonomikoa, soziala eta politikoa balioztatzearekin ere bat datoz.

Ekonomiaren globalizazioaren fenomenoari dagokionez, gazteak nagusiak baino kritikoagoak dira, eta eragozpenak abantailen ginetik jartzen dituzte.

EAEko gazteak ez daude 29 urtetik gorakoak bezain gustura udalekin, aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Estatuako Gobernuarekin, eta asebetetzea antzekoa da Europar Batzordearekin. Gaztedia kritikoagoa da Eusko Jaurlaritzak zenbait arlotan daraman jardunarekin ere.

Gazteak eta nagusiak ez daude gustura Espainiako estatuko eta Euskal Herriko demokraziaren funtzionamenduari. Hala ere, gazteen

ezadostasuna askoz handiagoa da Espainiako estatuari dagokionez, eta Euskal Herriari buruzkoa ere handixeagoa da.

Aurreko ekitaldiei dagokienez

Politikarekiko interesak eta alderdi politikoenganako hurbiltasunak nahiko baxu jarraitzen dute, aurreko urteen antzera.

EAJk orain artean bezala lehenengo postuari eusten dio. Beste alderdiek aurreko urteetako kalifikazioekin jarraitzen dute, Batasunak eta PPeK ezik; horiek 1999tik beherantzako joera dute.

Gauza bera gertatzen da azken bi talde horietako buruzagiekin: Arnaldo Otegi eta Karlos Iturgaitzen puntuazioa jeisten ari da, Nikolas Redondorena bezala.

Oro har, ez da aldaketa garrantzitsurik gertatu gazteek euskal herritar-espainiar ardatzean nahiz ezker-eskuin ardatzean duten kokaeraz ari garela; hala ere, gorantz jarraitzen du azken ardatz horretan kokatzen ez diren gazteen kopuruak (%38).

Euskal Herriaren independentziarekiko adostasunaren ehunekoak aurreko urtekoaren antzera jarraitzen du.

Erakundeekiko konfiantzak, oro har, behera egin du eta 1999-2000rekiko, aldaketak izan ditu sailkapeneko lehenengo tokietan: hala, Eusko Legebiltzarrarekiko konfiantzak behera egin du, eta Ertzantzarekikoak gora. Edonola ere, ejertzitoak eta alderdi politikoek azken tokietan jarraitzen dute. Egoera pertsonala ikusteko moduak orain arteko baloraziorik onena lortu du, Euskadiko egoerari buruzko balioztatzea aurreko urtekoa baino hobea da, eta Estatuko egoerarena mantendu egin da.

Azkenik, administrazioarekiko adostasuna jaitsi egin da arlo guztietan, Europako Batzordearena izan ezik. Espainiako Gobernuarekiko ezadostasuna beste administrazioekikoa baino gehiago hazi da.

Azken buruan

Euskadiko gazteek interesa dute zientziaren eta **teknologia berrien** esparruan sortzen diren berrikuntzengan, eta ordenagailua, Interneteko konexioa, posta elektronikoa eta telefono mugikorra dira eguneroko bizimodurako beharrezkoentzat hartzen diren tresnak. Teknologia horien bidez egiteko prest dauden jarduerak honako hauek dira batez ere: ikuskizunetarako sarrerak erostea, administrazio publikoarekin harremanak izatea eta banku kudeaketak egitea. Eragiketa horiek Interneten nahiz beste teknologia batzuen bidez egiteak datu pertsonalen babesean eskaintzen duen segurtasunari dagokionez, baxua da, txartelaren bidez ordaintzearen kasuan izan ezik. Hala ere, sei gaztetik bat ez du kezkatzen informatika erabiltzeak herritarren intimitateari eragiten dion arriskuak.

EAEko gazteei interes txikia eragiten die **politikak**, gehienek ezkertiar direla diote, eta hurbiltasun txikia dute alderdi politikoeikiko. Alderdi politikoeitako batek ere ez du gainditu gazteen azterketa. Ondoen balioztatutako alderdiak PNV/EAJ, EA eta IU/EB izan dira. Buruzagi politikoeitako inork ere ez du gainditu, baina Juan Jose Ibarretxe lehendakaria da ondoen balioztatutakoa.

Gazteak gehienbat **euskal herritar** sentitzen dira. Hauek Estatutua eguneratzearen aldeko dira argi eta garbi, eta autonomiaren eteteak inolaz ere ez lukeela lagunduko uste dute.

EAEk, Nafarroak eta Iparraldeak erakunde harreman sarriago eta egonkorragoak ezar ditzaten nahi du herenak. Gainera, lautik batek hiru lurralde horiek osatutako Estatu independentea nahi dute, eta bostetik batek orain arte bezala jarraitu nahi dute. Gainerako aukerak minoritarioak dira. Espainiako estatuaren **lurralde antolamenduari** dagokionez, gehiengoaren aukera da autonomia erkidegoen autodeterminazioko eskubidea onartuko lukeen Estatua. Gainerakoak egungoa bezalako Estatua nahi dutenak eta autonomia handiagoa duten autonomia erkidegoekiko Estatua nahi dutenak dira. EAEko gazteek ia ez dute hartzen egungoa baino Estatu zentralizatuagoaren aukera.

Gehiengoak uste du bidezkoa dela Euskal Herriarentzako autodeterminazio eskubidea erreferendumean planteatzea, eta hori onartzeak baketzean lagunduko lukeela jotzen du. Euskal Herriaren independentzia babesten dutenak baztertzen dutenak beste dira; gehiengoak orain ez du iritzirik ematen, eta egoeren arabera aldekoak edo aurkakoak izango lirateke.

Egoera pertsonala EAEren egoera baino hobeto balioztatzen dute, eta azken hori Estatuarena baino hobeto. Egoera ekonomikoa da balioztatze onena lortu duena; gizarte egoeraren inguruan banaketa dago, eta egoera politikoak balioztatze negatiboa du. Euskadiko administrazioarekin (udalak, aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) gustura daude, eta Estatuarekin ez (Espainiako Gobernua). Hala ere, kritikoagoak dira Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren arloan izandako jarduerarekin.

Gehienek diote bortxakeria ez dela beharrezkoa arazo politikoak konpontzeko, eta itxaropena dute bakea hurrengo urteetan lortuko dela. Demokraziaren funtzionamenduarekiko poztasunik eza oso altua da, batez ere Espainiako estatuan, eta Euskal Herrian ere oso altua da.

Fitxa teknikoa

Informazioa **2002**ko hiru unetan jaso zen:

- Lehenengo landa lana, 2002ko lehenengo Euskal Soziometroarena (bildumako 18. alea), urtarrilaren 29tik otsailaren 13ra egin zen. Aldi horretan 15 eta 29 urte bitarteko gazteei 829 inkesta egin zitzaizkien.
- Bigarren landa lana, 2002ko bigarren Euskal Soziometroarena (19.), maiatzaren 6tik 21era egin zen. Aldi horretan 15 eta 29 urte bitarteko gazteei 848 inkesta egin zitzaizkien.
- Hirugarren landa lana, 2002ko hirugarren Euskal Soziometroarena (20.), urriaren 3tik 20ra egin zen. Aldi horretan 15 eta 29 urte bitarteko gazteei 835 inkesta egin zitzaizkien.

Guztira 8570 elkarrizketa egin ziren; 2512, 15 eta 29 urte bitarteko gazteei, eta 6058, 30 urte edo gehiagoko pertsoneri.

Hortaz, adierazle batzuetarako hiru neurketa ditugu, eta beste batzuetarako, baliteke une bakar bateko datuak izatea. Hortaz, eta nahasteak saihesteko, taula bakoitzean zenbat gazterekin lan egin den adierazten da.

Kasu guztietan, landa lana galdesorta egituratu eta itxi bidezko banakako elkarrizketan oinarritu zen; elkarrizketa etxez etxe egin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko bakoitzeko lagin adierazgarriari.

Emaitzen **azterketa** eta **txostena**, ikerketaren **diseinua** bezala, Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen eskumenekoak dira erabat.

Landa lana Ikertalde enpresak (Askatasunaren hiribidea, 17-19, Donostia. 20004) egin zuen.

Inkestatuak etapa anitzeko **prozedura** estratifikatu bidez aukeratu ziren, eta ausazko bideak jarraitu ziren (642 laginketa puntutan oinarrituta⁴); norbanakoak sexuaren, adinaren eta okupazio nagusiaren kuoten bidez hautatu ziren, eta gero, biztanleriaren tamainaren eta 2001eko maiatzeko erkidegoko hauteskundeetan bozkatu zenaren oroimenaren arabera haztatu ziren, hiru probintzietako bakoitzean.

⁴ Hasierako toki fisiko zehatza ausaz lortu zen hauteskunde sekzio bakoitzean (azterketako gutxieneko unitate geografikoa) jasotako kale zatien artean, eta EUSTATEk egindako kale izendegiaren arabera.

Lagin errorea, 2.512 gazteen datu matrizearena, eta lagina hertsiki ausazkoa izatearen kasu teorikoan esleigarria; % \pm 1,9koa da EA Erako, % 95,5eko konfiantza mailarekin eta $p=q=0,5$. Baldintza beretan, hiru azterketa horietan gazteen laginari egotz dakiokkeen errorea % \pm 1,1ekoa da.

A.- Euskadiko gazteak eta teknologia berriak

- **Teknologia berrienganako jarrera**
- **Teknologia berrien beharra**
- **Teknologia berrienganako interesa**
- **Etorkizunerako asmoak**
- **Informatika eta intimitate pertsonala**
- **Datu pertsonalen babesa**

Euskadiko gazteak eta teknologia berriak

Teknologia berrienganako jarrera


(GUZTIZKOAK)

Nolako interesa daukazu zientzia eta teknologien arloan sortzen diren gauza berrietan: handia, nahikoa, txikia edo batere ez?

n=829	EAE 2002	
	15-29 URTE	>=30 URTE
INTERES HANDIA	18	10
NAHIKOA INTERES	50	31
INTERES TXIKIA	25	29
BATERE INTERESIK EZ	7	28
Ed/EE	1	1
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100

Teknologia berrienganako jarrera

(Guztizkoak 15-29 urte)



EAE-KO GAZTEEN %68K INTERESA DUTE ZIENTZIAREN ETA TEKNOLOGIAREN ARLOAN SORTZEN DIREN BERRIKUNTZENGANAKO, HEIN HANDIAGOAN EDO TXIKIAGOAN: %18K INTERES HANDIA DUTE, ETA %50K NAHIKOA INTERES. BESTE MUTURREAN INTERES TXIKIA DUTENAK DAUDE, HOTS, GAZTEEN %32: INTERES GUTXI DU %25K, ETA %7K BATERE INTERESIK EZ DU.

Gazteek eta 30 urtetik gorakoek teknologia berriekiko duten interesa alderatzen badugu, alde nabarmenak daude. Interes gutxikoen ehunekoa gazteen arteko %32tik nagusien arteko %57ra igotzen da.

Euskadiko gazteak eta teknologia berriak


Teknologia berrienganako jarrera

(KOLEKTIBOKA)

Nolako interesa daukazu zientzia eta teknologien arloan sortzen diren gauza berrietan: handia, nahikoa, txikia edo batere ez?

n=829	GUZTIRA 15-29 URTE	IKASKETA MAILA			HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA			POLITIKAREKIKO INTERESA			
		<=LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	BAXUA	ERDIKOA	ALTUA	BATERE EZ	HANDIRIK EZ	NOLABAITEKOA	HANDIA
INTERES HANDIA.....	18	13	22	13	13	18	23	19	19	15	17
NAHIKOA INTERES.....	50	45	47	63	53	49	51	45	46	60	60
INTERES TXIKIA.....	25	30	24	20	24	25	21	25	28	22	21
BATERE INTERESIK EZ.....	7	11	6	3	8	7	5	10	6	3	2
Ed/Ee.....	1	1	1	1	1	1	0	1	1	0	0
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

- Ikasketa mailak oso lotura estua du gazteek zientziaren eta teknologiaren arloko berritasunenganako duten interesarekin. Hala, lehen mailako ikasketak edo baxuagoak dituztenen %58k interes handia edo nahiko handia dute; ehuneko horiek %69 bigarren mailako ikasketak dituztenentzat eta %76 unibertsitatekoak dituztenentzat.
- Antzeko zerbait gertatzen da hautemandako klase sozialarekin, baina neurri txikiagoan. Interes handiagoa dute klase sozial altuko sentitzen direnek (%74) klase ertaineko (%67) eta klase baxuko (%66) sentitzen direnek baino.
- Politikarekiko interesa aztertzen badugu, erlazioa dago politikarekiko interesa dutenen eta teknologia berriekiko interes handiena dutenen artean. Hala, politikarekiko batere interesik ez dutenen artean, teknologia berriekiko interesa %64koa da, eta aldiz %77koa politikarekiko interes handia dutenen artean.




Euskadiko gazteak eta teknologia berriak

Teknologia berrien beharra

(GUZTIZKOAK)

Euskadin gero eta gehiagotan erabiltzen ditugun tresna eta teknologia berrien zerrenda irakurriko dizut. Zuk halakorik eduki ala ez alde batera utzita, esadazu, mesedez, horien beharrik duzun edo izango zenukeen eguneroko bizitzan.

% Oso/NAHIKO BEHARREZKOA	EAE 2002	
	15-29 URTEAK	>=30 URTE
N=829		
ORDENAGAILUA	74	42
INTERNET-KONEXIOA	63	32
POSTA ELEKTRONIKOA	57	30
TELEFONO MUGIKORRA	56	44
FAXA	21	19
KABLE BIDEZKO TELEBISTA E	16	14
DVD	16	11
TELEBISTA KANAL DIGITALAK	12	12



- GALDETEGIAN AURKEZTUTAKO APARATU ETA TEKNOLOGIA BERRIEN ZERRENDATIK, GAZTEEN %74K ORDENAGAILU PERTSONALA EGUNEROKO BIZIMODURAKO OSO EDO NAHIKO BEHARREZKOTZAT JOTZEN DUTE, ETA %63K INTERNETEKO KONEXIOA ERE.
- BIGARREN MULTZO BATEAN, OSO EDO NAHIKO BEHARREZKOTZAT JOTZEN DITUZTE POSTA ELEKTRONIKOA (%57) ETA TELEFONO MUGIKORRA (%56).
- HONAKO HAUEK DIRA GAZTEEN EHUNEKO TXIKIENAK OSO EDO NAHIKO BEHARREZKOTZAT JOTZEN DITUEN TEKNOLOGIA BERRIAK: FAXA (%21), KABLE BIDEZKO TELEBISTA ETA DVD-A (%16) ETA TELEBISTAKO KANAL DIGITALAK (%12).
- Gazteek eta 29 urtetik gorakoek eguneroko bizimoduaren aparatuak eta teknologia berriak zenbateraino behar dituzten konparatuta, ezberdintasun handiak daude. Ezberdintasunak handiagoak dira lehenenago eta bigarren multzoan. Hala, ordenagailu pertsonalari behatuta, gazteen %74k oso edo nahiko beharrezkotzat dute, eta beharra %42ra jaisten da nagusien artean; Interneteko konexioa %63tik %32ra jaisten da, posta elektronikoa %57tik %30era jaisten da, eta telefono mugikorra % 56tik % 44ra. Telefono mugikorrak gazteen artean 4. postua du, ordea, 29 urtetik gorakoen artean lehen toki hartzen du.
- Gazteentzat interes gutxien duten bestelako aparatuak dira gainerako biztanleriaren sailkapenean ere azken postuetan daudenak.

Euskadiko gazteak eta teknologia berriak

Teknologia berrien beharra

(KOLEKTIBOKA)


Euskadin gero eta gehiagotan erabiltzen ditugun tresna eta teknologia berrien zerrenda irakurriko dizut. Zuk halakorik eduki ala ez alde batera utzita, esadazu, mesedez, horien beharrik duzun edo izango zenukeen eguneroko bizitzan

% Oso/NAHIKOA BEHARREZKOA N=829	GUZTIRA 15-29 URTE	ADIN TALDEAK				IKASKETA MAILA			HAUTEMANDAKO KLASA SOZIALA			EZKER-ESKUIN ARDATZA			
		15-17	18-21	22-25	26-29	<=LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	BAXUA	ERDIKOA	ALTUA	EZKERRA	ZENTROA	ESKUINA	Ed/Ee
ORDENAGAILUA	74	75	78	79	64	68	75	81	69	74	85	76	81	60	71
INTERNET-KONEXIOA	63	61	64	70	55	54	62	75	54	64	67	63	69	58	60
POSTA ELEKTRONIKOA	57	47	56	66	53	43	58	71	52	57	68	57	66	56	52
TELEFONO MUGIKORRA	56	58	55	54	59	58	55	57	51	57	60	49	54	72	64
FAXA	21	15	19	24	24	18	22	24	21	21	24	20	26	18	21
KABLE BIDEZKO TELEBISTA	16	28	15	9	16	23	14	11	15	15	18	12	19	15	18
DVD	16	17	11	16	21	18	15	15	21	21	24	13	21	21	15
TELEBISTA KANAL DIGITALAK	12	16	12	11	11	16	11	10	13	11	21	10	12	11	15

- 22-25 urte bitarteko adin taldea da teknologia berrien behar handiena izateagatik nabarmentzen dena; oso edo nahiko beharrezkotzat jotzen dituzte batez ere ordenagailu pertsonala (%79), Interneteko konexioa (%70) eta posta elektronikoa (%66).
- Oro har, zenbat eta ikasketa maila handiagoa izan, hainbat eta beharrezkoagotzat jotzen dituzte teknologia berriak: lehenengo mailako ikasketak dituztenen artean, posta elektronikoaren beharra %43koa da, eta unibertsitate ikasketak dituztenen artean, %71koa. Salbuespenak ere badaude: batetik, telefono mugikorraz eta DVDaz ari garela, ez dago ikasketa mailari dagokion ezberdintasunik; bestetik, telebistako kanal digitalak eta kable bidezko telebista gehiagotan oso edo nahiko beharrezkotzat jotzen dituzte lehen mailako ikasketak edo baxuagoak dituztenek.
- Hautemandako klase sozialari dagokionez, altuagoa den heinean, teknologia berrien behar handiagoa da. Klase sozial altukoak direla diotenak nabarmentzen dira, oso edo nahiko beharrezkotzat dituzte ordenagailu pertsonala (%85), Interneteko konexioa (%67) eta posta elektronikoa (%68); hala ere, faxari, kable bidezko telebistari eta DVDari dagokienez, aldeak oso urriak dira.
- Proposatutako aparatuen eta teknologia berrien beharra norberak bere burua ezker-eskuin ardatzean kokatzen duen tokiari lotzen zaio, telebistako kanal digitalena izan ezik. Hala, zentroan kokatzen diren gazteek aitortzen dute teknologia berrien beharrik handiena, ondoren ezkerrean kokatzen direnek, eta azkenik eskuinean kokatzen direnek. Hala ere, telefono mugikorra salbuespena da. Izan ere, eskuinekoek dute beharrezkoentzat, gero zentrokoek eta azkenik ezkerrekoek.

Teknologia berrien beharra

(Kolektiboka)



Euskadiko gazteak eta teknologia berriak

Teknologia berrienganako interesa


(GUZTIZKOAK)

Etetik irten gabe ordenagailuz edo telefono mugikorraren bidez erabili ahal izango zenituzkeen zerbitzu batzuk irakurriko dizkizut. Zuk honako hauek erabiltzeko interesa izango zenuke?

INTERESATUA LEGOKEEN % N=829	EAE 2002	
	15-29 URTE	>=30 urte
LANA BILATU	78	34
BIDAIA BAT PRESTATU, ERRESERBAK EGIN, TOKI BATI BURUZ BEHAR DUZUN INFORMAZIOA LORTU	75	42
ZURE HIRIAREN EDO UDALERRIAREN ZERBITZU ADMINISTRATIBOAK EZAGUTU EDO BEHAR DITUZUN DOKUMENTUAK LORTU	72	50
EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK ETA BESTELAKO ARGITALPEN ETA DOKUMENTUAK IRAKURRI	70	30
ZUZENEKO PRESTAKUNTZA EDO IKASTAROA EGIN (ON LINE).....	64	38
OSASUN ARAZO EZ MEDIKU BATEK DUEN IRITZIA EZAGUTU	59	45
BANKUETAKO KONTUAK EGIN, GESTIONATU ETA KONSULTATU	53	34
EROSKETAK EGIN	34	16
MUSEOETAKO ARTE-BILDUMAK IKUSI	32	30
POLITIKARIEKIN HARREMANETAN JARRI, EZTABAIDA POLITIKOETAN PARTE HARTU	17	11

Teknologia berrienganako interesa

(Guztizkoak)



ORDENAGAILUAREN EDO TELEFONO MUGIKORRAREN BIDEZ ERABILTZEKO PROPOSATU ZAIZKEN ZERBITZUEN ARTETIK, GAZTEEK HONAKO HAUEK DITUZTE BATEZ ERE INTERESGARRITZAT: ENPLEGUA BILATZEA (%78), BIDAIA BAT PRESTATZEA, ERRESERBAK EGITEA, TOKI BATI BURUZ BEHARREZKOA DEN INFORMAZIOA BILATZEA (%75), HIRIKO EDO UDALERRIKO ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK KONSULTATU EDO DOKUMENTUAK LORTZEA (%72), EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK ETA BESTELAKO ARGITALPEN EDO DOKUMENTUAK IRAKURTZEA (%70) ETA ZUZENEKO IKASTARO EDO PRESTAKUNTZAREN BAT (ON-LINE) JARRAITZEA (%64).

INTERESGARRITZAT JOTZEN DUTE OROBAT HONAKOETARAKO ERE: OSASUN ARAZO EZ MEDIKU BATEK DUEN IRITZIA KONSULTATU (%59) ETA BANKU KONTUAK EGIN, KUDEATU ETA IKUSTEA (%53).

ALDIZ, INTERES GUTXIAGO DUTE EROSKETAK EGITEKO (%34), MUSEOETAKO ARTE BILDUMAK IKUSTEKO (%32) ETA ALDERDI POLITIKOREN BATEKIN HARREMANETAN JARRI EDO EZTABAIDA POLITIKOETAN PARTE HARTZEKO (%17) ERABILTZEKO.

Teknologia berriak erabiltzeko interesa askoz handiagoa da gazteengan 30 urte edo gehiagokoengan baino. Hala, enplegua bilatzea gazteen %78k aipatu dute, eta nagusietan, %34k baino ez; bidaia bat prestatu, erreserba egin eta toki bati buruzko beharrezko informazioa bilatzea gazteen %75ek aipatu dute, eta nagusietan, %42k.

Euskadiko gazteak eta teknologia berriak

Teknologia berrienganako interesa

(KOLEKTIBOKA)

Etzetik irten gabe ordenagailuz edo telefono mugikorraren bidez erabili ahal izango zenituzkeen zerbitzu batzuk irakurriko dizkizut. Zuk honako hauek erabiltzeko interesa izango zenuke?

INTERESATUA LEGOKEEN % N=829	GUZTIRA 15-29 URTE	ADIN TALDEAK				IKASKETA MAILA			POLITIKAREKIKO INTERESA			
		15-17	18-21	22-25	26-29	<=LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	BATERE EZ	HANDIRIK EZ	NOLABAITE KOA	HANDIA
LANA BILATU	78	68	81	80	78	69	79	86	75	80	81	83
BIDAIA BAT PRESTATU, ERRESERBAK EGIN, TOKI BATI BURUZ BEHAR DUZUN INFORMAZIOA LORTU	75	67	74	81	75	70	76	82	73	71	81	86
ZURE HIRIAREN EDO UDALERRIAREN ZERBITZU ADMINISTRATIBOAK EZAGUTU EDO BEHAR DITUZUN DOKUMENTUAK LORTU	72	53	69	78	80	58	74	85	67	76	76	79
EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK ETA BESTELAKO ARGITALPEN ETA DOKUMENTUAK IRAKURRI	70	66	71	72	67	62	71	76	69	69	70	79
ZUZENKO PRESTAKUNTZA EDO IKASTAROAK EGIN (ON LINE)	64	50	62	67	70	56	63	76	57	70	70	67
OSASUN ARAZOEZ MEDIKU BATEK DUEN IRITZIA EZAGUTU	59	50	59	61	64	59	57	64	55	64	62	61
BANKUETAKO KONTUAK EGIN, GESTIONATU ETA KONTSULTATU	53	32	52	56	63	42	54	65	44	56	64	63
EROSKETAK EGIN	34	36	35	35	31	32	35	34	37	33	31	34
MUSEOETAKO ARTE-BILDUMAK IKUSI	32	18	32	40	31	23	34	37	31	34	29	39
POLITIKAREKIKIN HARREMANETAN JARRI, EZTABAIDA POLITIKOETAN PARTE HARTU	17	11	16	20	20	12	18	23	10	11	23	58


Aldeak daude zerbitzuak ordenagailu eta telefono mugikorraren bidez erabiltzeagatik interesa adin tarteka aztertuz gero, eta gazteenen (15-18 urte) eta hurrengo hiru adin tarteen (18-21, 22-25 eta 26-29 urte) artean; gehienetan, interesa urriagoa da lehenengo taldean.

Hemen ere aldeak daude ikasketa mailaren arabera. Bereziki interesatuta daude goi mailako ikasketak dituztenak; horietatik %86k enplegua bilatzeko interesa izango lukete, eta %85ek bere hiriko edo udalerriko administrazio dokumentuak kontsultatu edo dokumentuak lortzeko.

Politikarekiko erakutsitako interesaren aldetik, kasu guztietan (erosketak egiteko erabileran izan ezik), teknologia horiek erabiltzeko interes handiena dutenak politikari buruzko interes handiena dutenak dira.

Teknologia berrienganako interesa

(Kolektiboka)



Euskadiko gazteak eta teknologia berriak

Etorkizunerako asmoak

(GUZTIZKOAK)

Eta etorkizun hurbilean pentsatzen jarrita, esadazu ea zuk zeuk ondoko ekintzak ordenagailuaren bidez egingo dituzun seguruenik, beharbada egingo dituzun, egingo dituzunik uste ez duzun, ala ziur zauden ez duzula egingo.

% OSO+NAHIKOA SEGURU N=829	EAE 2002	
	15-29 URTE	>=30 URTE
ZINE, ANTZERKI EDO ESPEKTAKULUETARAKO SARRERAK LORTU	78	40
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN DOKUMENTU BAT ESKATU	66	43
BANKUETAKO GESTIOAK EGIN	57	37
ERREKLAMAZIOA EDO KEXA AURKEZTU	55	35
ERRENTA DEKLARAZIOA EGIN	53	37
ETXEKO EROSKETAK EGIN	30	18

EUSKADIKO GAZTEEN %78K DIOTE SEGURUENIK EDO BEHARBADA ETORKIZUNEAN IKUSKIZUNETARAKO, ZINEMARAKO ETA ANTZERKIRAKO SARRERAK ATERATZEKO ERABILIKO DUTELA ORDENAGAILUA, ETA %66K, ADMINISTRAZIO PUBLIKOARI DOKUMENTUREN BAT ESKATZEKO.



GAINERA, %57K DIOTE ORDENAGAILUA ETORKIZUNEAN BANKU KUDEAKETETERAKO ERABILIKO LUKETELA, %55EK KEXA EDO ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEKO ETA %53K ERRENTA AITORPENA EGITEKO.

ORDENAGAILU BIDEZ EGITEKO PROPOSAMENETATIK GUTXIEN ONARTU DENA (%30) ETXEKO EROSKETAK EGITEA IZAN DA.

Alde handiak daude 30 urte edo gehiagoko biztanleengandik lortutako datuekin; gazteak dira etorkizun hurbilean ordenagailu bidez egiteko proposatutako jarduerak egiteko asmo gehiago dutenak.

Etorkizunerako asmoa

(Guztizkoak)



Euskadiko gazteak eta teknologia berriak


Etorkizunerako asmoak

(KOLEKTIBOKA)

Eta etorkizun hurbilean pentsatzen jarrita, esadazu ea zuk zeuk ondoko ekintzak ordenagailuaren bidez egingo dituzun seguruenik, beharbada egingo dituzun, egingo dituzunik uste ez duzun, ala ziur zauden ez duzula egingo.

% OSO+NAHIKOA SEGURU N=829	GUZTIRA 15-29 URTE	ADIN TALDEAK				IKASKETA MAILA			HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA		
		15-17	18-21	22-25	26-29	<=LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	BAXUA	ERDIKOA	ALTUA
ZINE, ANTZERKI EDO ESPEKTAKULUETARAKO SARRERAK LORTU	78	74	80	80	74	70	79	86	72	80	82
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN DOKUMENTU BAT ESKATU	66	55	68	69	66	52	69	75	64	67	60
BANKUETAKO GESTIOAK EGIN	57	49	57	58	60	47	58	69	54	58	57
ERREKLAMAZIOA EDO KEXA AURKEZTU	55	50	58	53	56	43	58	63	52	57	46
ERRENTA DEKLARAZIOA EGIN	53	42	55	55	56	41	55	64	50	54	59
ETXEKO EROSKETAK EGIN	30	32	32	29	28	25	34	26	25	31	36

- Ordenagailu bidez egiteko proposatutako jarduera batzuetan, adinak ezberdintasunak eragiten ditu. Zehatz-mehatz, gazteenen taldea (15-17 urte) da proposatutako jarduerak ordenagailu bidez egiteko asmo gutxien duen taldea, etxeke erosketak egitearen aukeran izan ezik, hor aldeak oso txikiak baitira.
- Oraingoan ere, zenbat eta ikasketa maila altuagoa izan, hainbat eta aukera gehiago dago jarduera horiek (etxeke erosketak izan ezik) ordenagailu bidez egiteko. Kasurako, administrazio publikoari dokumentuak eskatzearen ehunekoa %52koa da lehen mailako ikasketak edo baxuagoak dituztenen artean, eta %75ekoa goi mailako ikasketak dituztenen artean.
- Hautemandako klase sozialari dagokionez, beren burua klase sozial baxukotzat sentitzen duten gazteen artean, jarduera guztiak ordenagailu bidez egitearen aukera txikia konstantea da. Hala, klase sozial altukoak sentitzen direnen %82k erosiko lituztekete sarrerak ikuskizunetarako, zinemarako edo antzerkirako, eta klase sozial baxukoak sentitzen direnetatik, %72k.



Euskadiko gazteak eta teknologia berriak

Informatika eta intimitate pertsonala


(GUZTIZKOAK)

Sarritan esaten da informatikaren eta ordenagailuen erabilerak —bai jendearenak bai instituzioenak— hiritarren intimitatea arriskuan jar dezakeela. Nolako kezka sortzen dizu horrek?

N=829	EAE 2002	
	15-29 URTE	>=30 URTE
KEZKA HANDIA	10	11
NAHIKOA KEZKA	28	28
KEZKA TXIKIA.....	32	24
EZ DIT KEZKARIK SORTZEN	27	29
Ed/Ee	2	8
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100

Informatika eta intimitate pertsonala

(Guztizkoak 15-29 urte)



EAEKO GAZTEEN GEHIENGOA (%59) EZ DU KEZKATZEN EDOTA KEZKA TXIKIA SORTZEN DIO INFORMATIKA ETA ORDENAGAILUAK ERABILTZEAN HERRITARREN INTIMITATEAK DUEN ARRISKUAK. ALDIZ, %38K KEZKA HANDIA (%10) EDO NAHIKOA KEZKA (%28) ADIERAZTEN DUTE.

30 urte edo gehiagoko biztanleriari intimitate pertsonala urratzeak eragiten dion kezkaen aldetik, datuak ia gazteenen berdinak dira.

Euskadiko gazteak eta teknologia berriak

Informatika eta intimitate pertsonala

(KOLEKTIBOKA)


Sarritan esaten da informatikaren eta ordenagailuen erabilerak —bai jendearenak bai instituzioenak— hiritarren intimitatea arriskuan jar dezakeela. Nolako kezka sortzen dizu horrek?

N=829	GUZTIRA	ADIN TALDEAK				IKASKETA MAILA			POLITIKAREKIKO INTERESA			
